

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AZKEN AKABERAK ETA ERREMATEAK HARLANGAITZ-HORMAKO, HARLANDUZKO OBRAKO ETA PARPAINARRIKO OBRAN.	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF1110		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturala eraikinetan jartzea	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Harlangaitz-horma, harlanduzko obra eta parpainarria jartzea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harlangaitz-hormako, harlanduzko obrako eta parpainarriko lanak eta zuinketa prestatzea	Iraupena	30
	Harlangaitz-horma, harlanduzko obra eta parpainarria doitzea eta jartzea obran.		60

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1375\_2 HARLANGAITZ-HORMA, HARLANDUZKO OBRA ETA PARPAINARRIA JARTZEA gaitasun-atalako LB7, LB8 eta LB9 lanbide-burutzapenekin

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1 Ezarritako prozedurak aplikatzea dintelak, arkuak, erlaitzak, zutabeak eta harlangaitz-hormako, harlanduzko obrako eta parpainarriko bestelako erremate bereziak egiteko, ezarritako kalitate- eta segurtasun-arauak betez.

E1.1 Harlangaitz-hormako, harlanduzko obrako eta parpainarriko eraikuntzarako elementu osagarriak muntatu eta desmuntatzeko beharrezko prozesua eta egikaritzea-baldintzak deskribatzea:

- Behin-behineko txarrantzatzea.
- Eskoratzekak.
- Zinbriak eta sopandak.
- Txantiloak, montioak, markoak, karga-habeak eta beste elementu osagarri batzuk.

E1.2 Dintelak eta arkuak eraikitzeke beharrezko prozesua eta egikaritzea-baldintzak deskribatzea.

E1.3 Erlaitzak, moldurak eta inpostak eraikitzeke beharrezko prozesua eta egikaritzea-baldintzak deskribatzea.

E1.3 Ageriko fabrikako leiho-barrenak, txapelak eta mailak eraikitzeke beharrezko prozesua eta egikaritzea-baldintzak deskribatzea.

E1.4 Zutabeak, eskailerak, balaustreak, eskudelak eta beste eraikuntza-elementu berezi batzuk eraikitzeke beharrezko prozesua eta egikaritzea-baldintzak deskribatzea.

E1.5 Harlanduzko obra edo parpainarria jartzeko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Multzo-plano batean definitutako erremate berezi bat lortzeko beharrezko lanak zuzen sekuentziaz eta egitea, prozesuaren faseetako bakoitza zuzen identifikatuz eta egikaritzuz.
- Karga-habeak, aurrefabrikatuak edo osoko piezak ezarrita dauden betekizunak errespetatuz jartzea.

A2: Erremate-eragiketarako egitea harrizko fabrikako lanetan, junturen, doikuntzen eta oro har lan osagarrien tratamendua barne, segurtasun-baldintzetan eta ingurumenari buruzko araudia errespetatuz.

E1.2.1 Elementu osagarri eta gehigarri desberdinak identifikatzea (saretak, hustubideak, metalezko erremateak eta beste batzuk), baita harrizko elementuetan sartu behar diren beharrezko erremateak ere.

E1.2.2 Junturak eta azken erremateak tratatzeko sistemak identifikatu eta aplikatzea.

E1.2.3 Obrako garbiketarako eta azken akaberarako sistemak identifikatu eta aplikatzea.

E1.2.4 Ageri daitezkeen akats nagusiak identifikatzea, horien arrazoiekin eta konponbideekin lotuz.

E1.2.5 Harrizko fabrika baten erremateari buruzko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Lanak entregatzeko beharrezko jardunak egitea, jarritako elementuak eta ingurua garbituz eta prozesu osoan zehar sortutako hondakinak bilduz.

##### Edukiak:

##### 1. Harri naturaleko elementu bereziak jartzea.

- Elementu bereziak jartzea. Prozesu eta prozedura operatiboak.
  - Arkuak, dintelak.
  - Zutabeak.

- Erlaitzak, inpostak, txapelak, leiho-barrenak.
- Eskailerak.
- Balaustreak, eskudelak eta beste eraikuntza-elementu batzuk.
- Beste erremate eta moldura berezi batzuk.

## 2. Elementu osagarriak jartzea:

- Behin-behineko txarrantzatzea.
- Eskoratzak.
- Elementu osagarriak:
  - Zinbriak eta sopandak.
  - Txantiloak, muntioak.
  - Zerkoak, markoak, karga-habeak.
- Karga-habeak, aurrefabrikatuak edo osoko piezak jartzea.

## 3. Lan osagarriak, erremateak eta akaberak.

- Elementu osagarriak eta gehigarriak jartzea: saretak, hustubideak, metalezko erremateak eta beste batzuk.
- Hezetasunaren aurkako babesak: hesiak abiaguneetan eta azaleko akaberetan.
- Junturen lodiera, betelana eta akabera. Junturen eta gainazalen tratamendua. Zigilatze materialak.
- Erremate bereziak.
- Harizko fabriken eta laneko gunearen garbiketa.
- Garbiketa-teknikak, akabera eta itxura.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturala eraikinetan jartzea